

# ‘Inposizioak’, ‘pribilegioak’, eta beste botere gatazka batzuk

*Artikulu honen bertsio laburtu bat Euskal Soziolinguistika Jardunaldian aurkeztu genuen, 2024ko apirilaren 23an, Gasteizen, Soziolinguistika Klusterrak eskatuta.*

Mikel P. Ansa

Bada kezka bat azkenaldian, euskararen kontrako jarrerak eta diskurtsoak indarra hartzen ari ote diren. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako auzitegietatik euskara eskakizunen kontrako epai olde bat etorri da azken urteotan. Nafarroan eztabaida bizia dago, Topaguneak duela gutxi aurkeztu duen proposamena horren seinale, sumatzen ari baitira herrialde horretan euskararen kontrako jarrera indartzen ari dela eta politikoki hauspotzen ari dela. Katalunian katalana «inposatu» egiten dela dioen korrante horren oihartzuna ere iristen da Hego Euskal Herrira, orain berri Espainiako Kongresuan, Voxek eta PPK bultzatuta, «bazterketa linguistikoaren» kontra onartu duten adierazpenak erakusten duenez. Eta euskaldunen artean ere sortzen ari dira diskurtso berriak, orain arte aditu gabeko argudioak eta ideiak.

Argitu nahi dut ni ez naizela aditua: ez naiz soziologoa, ez soziolinguista, ezta hizkuntzalaria ere. Kazetari bat besterik ez naiz, eta kazetariaren betaurrekoekin ahaleginduko naiz aztertzen ea zer bilakaera izaten ari diren euskarari buruzko diskurtsoak azken urteetan. Soziolinguistikaren eta bereziki demolinguistikaren zalea banaiz ere, ez ditut jarraitzen sektoreko eztabaida eta ikerketa guztiak; halere, nik dakidan neurrian, Iñaki Martínez de Lunak (2013, 2016) eta Xabier Erizek (2016) ikertu izan dituzte, batez ere, euskarari buruzko diskurtsoak, eta uste dut, oker banago zuzenduko didazue, hamarkada batean ez direla berritu euskararen inguruko diskurtsoei buruzko azterketa orokorrak. Nafarroa da salbuespena, lehen aipatutako kezka hori ez baita berria lurralde horretan. Mereziko luke, nik uste, euskarari buruzko diskurtsoen arlo honetan ikerketa eguneratzea, eta ez soziolinguistikaren edota soziologiaren ikuspegitik bakarrik; esango nuke diskurtsoei buruzko auzi honetan psikologia sozialak, antropologiak eta beste diziplina batzuek ere badutela zer esana, eta ikuspegia aberasteko ikuspuntuak ekarriko lituzketela. Beraz, hemen aurkeztuko ditudanak zirriborro batzuk baizik ez direla argitu nahi nuke; dudarik gabe, ikerketa enpiriko sakonagoak beharko lirarteke hemen esango ditudanek funtsezko mamirik ba ote duten egiaztatzeko. Hortaz, eztabaidarako eta gogoetarako aurkezten ditut ideia hauek, ikertzeko gonbit gisa. Eta zehaztu nahi dut, baita ere, lan honek falta duela Ipar Euskal Herriko ikuspegia, eta euskarari buruzko diskurtsoek hiru herrialde horietan zein Frantzia zer bilakaera izan duen; ez dut eremu hori behar bezala ezagutzen, horri buruzko ekarpenik egiteko.

Hutsuneak hutsune, tesia laburtuko dut hasieratik, denbora aurrezteko: iruditzen zait diskurtsoetan azaleratzen direla gizartean dauden gatazkak; eta gatazkei buruz hitz egitea, botereaz hitz egitea dela; eta boterea, funtsean, norbait zerbait egitera behartzeko ahalmena dela. Uste dut *behartze* horretan dagoela gakoa, hain justu ere. Baina diskurtsoak ez dira hutsetik sortzen; ideia, ustekizun, iritzi, sinismen sozial... batzuetan oinarritzen dira. Eta diskurtsoen azpian dauden zipitz horiez ere

aritu nahi nuke. Sakonduko dut horretan, baina, laburtuz, ez zait iruditzen euskararen *kontrako* diskurtsoak indartu direnik; are gehiago, Nafarroatik kanpo —eta Nafarroan bertan ere bai— oso zaila da euskararen kontrako diskurtso argi bat egitea. *Euskararen kontra ezin da egon*; hori da sinismen sozial sendo samar bat —eremu batzuetako salbuespenarekin, noski—. Aldiz, uste dut euskara sustatzeko hizkuntza politiken aurkako diskurtsoa puztu dela, hizkuntza eskakizunen kontrakoa batez ere. Eta hori oso lotua dago aipatu ditudan ustekizun horiekin. Izan ere, nire ustez, honela laburtu liteke indarra hartzen ari den diskurtso mota bat: «Euskara bultzatzearen alde gaude, baina ez *horrela*». Edo beste hitz batzuekin ere formulatu ahalko genuke, agian inork hitz hauek, zehazki eta boz gora, erabili ez arren: «Euskara berreskuratzeko politikak *urrunegi* joan dira, eta [batzuen ustez] zatiketa sozialak eragiten ari dira».

Izan ere, urteotan feminismoaren esparruan ikusi dugun bezala, mugimendu sozial batek indarra hartzen duenean, haren diskurtsoak oihartzuna hartzen duenean, eta botere edo pribilegio batzuk auzitan jartzen ditueanean, kontrako erreakzioak sortzen eta antolatzen hasten dira, ikusten ari garenez, eta esango nuke antzeko zerbaite gertatzen ari dela euskararen inguruan, eta zenbait sektorek feminismoa *urrunegi* joan dela pentsatzen duten neurri berean hasi direla beste sektore batzuk ere pentsatzen euskara sustatzeko neurriak ere *urrunegi* joan direla. Eta hortaz, funtsean, botere gatazkez ari gara.

### **Diskurtsoak aztertzearen garrantziaz**

Aipatu dut Martinez de Luna, eta haren oinarri teorikoa ekarri nahiko nuke lehenik, egokia delakoan. Izan ere, 2016an argitaratu zuen *Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanketa*, eta han aipatu zuen diskurtsoak mundua adierazteko forma bat direla, baina ez hori bakarrik: sinismen, iritzi eta ideologiak zabaltzeko asmo bat ere badute diskurtsoek. Pertsonak erabiltzen dituzte diskurtsoak, elkarrekin lan egiteko, elkarren artean lehiatzeko, edo beste inor mendean hartzeko. Eta hori argi edukitzea komeni da: diskurtsoek ez dute errealitatea, egia islatzen. «Ideologien, markoen eta diskurtsoen helburua ez da errealitatea modu egiazkoan islatzea, baizik eta hari buruzko sinismenak bideratzea. (...) [diskurtsoek] Errealitate soziala sortzeko eta aldatzeko borondatea dute», idatzi zuen Martinez de Lunak.

Horregatik da inportantea diskurtsoak eta haien bilakaerak aztertzea, gizartean gertatzen ari diren botere gatazken ispiluak direlako. Michel Foucaultek (1979) berak esan zuen harreman sozialen sareko tentsioen emaitza direla diskurtsoak: «Indar harremanen eremuko elementu taktikoak dira diskurtsoak». Foucaulti jarraituz, boterea gizakien arteko elkarrekintza guztietan dago: norbanakoak boterearen subjektu eta objektu dira aldi berean, eta boterea ez da kanpoko eragile bakar batek gainerako guztiei ezartzen dien zerbaite, baizik giza harremanak ezaugarritzen dituen zer bat. Eta, bistan denez, hitzunen arteko erlazioak dira giza harremanak, eta hitzunek hizkuntzak dituzte. Hortaz, hizkuntzei buruzko diskurtsoak hitzun horien arteko tentsio eta gatazken ispilu izango dira.

Diskurtsoek, bestalde, forma egituratua hartzen dute: eragile jakin batek forma ematen dio ideia multzo bati, osagaiak aukeratu, eskematizatu eta moldatzen ditu, lortu nahi duen helburu bat zabaltzeko. Diskurtsoak aztertu litezke, beraz, eragile edo norbanako bakoitzak darabiltzan argudioen arabera, eta mailakatu edo multzokatu egin litezke eragileek auzi bati buruz darabiltzaten diskurtsoak. Eta azterketa horrela egin nahi bada, eragile edo norbanako bakoitzak bere diskurtsoari forma emateko zer osagarri erabiltzen dituen aztertu beharko litzateke, eta osagarri horietako bakoitzari zer garrantzi ematen dion. Hori baino gehiago, euskarari buruzko kontrako (edo zalantzazko) diskurtsoetan ageri diren osagarri diskurtsiboak aztertuko ditugu lan honetan: zein

argudio erabiltzen ari diren euskararen aldeko hizkuntza politikak zalantzan jartzeko, hizkuntza politika horiek gehiegizkoak direla irizten diotenen artean.

## Adibide bat eredu gisa

Baina osagarri edo argudio horietan sartu aurretik, arreta jarri nahiko nuke beste elementu batzuetan. Izan ere, diskurtsoetan forma egituratu eta antolatua hartzen duten argudio horien azpian ustekizun batzuk daude, eta horien artean marko edo *framing* bat osatzen da. Diskurtsoaren forma hartu gabe ere, diskurtsoak posible egiten dituzten pentsamendu, ideia, uste... sorta bat bada gizartean. Horietako batzuek onarpen aski zabala dute, *egia sozial* gisakoak dira, eta beste batzuk, aldiz, gizartearen zati batean soilik agertzen dira. Era batera edo bestera, horietan funtساتzen dira diskurtsoak.

Eta ustekizun horietako batzuk zertan diren esplikatzeke, duela gutxiko adibide bat ekarriko dut: apirilaren 10ean, *El País* egunkariak argitaratu zuen erreportaje bat, hauteskunde kanpainaren harira, euskarari buruzko zenbait auzi errepatatuz. Azpitoluak honela zioen, hitzez hitz: «*La lengua vasca se conoce más que nunca, pero su uso no alcanza la misma proporción. Su imposición [euskararen inposizioa] en la escuela y al funcionamiento provoca desencuentros*». Gatazkak sortu dituela euskara eskolan eta funtzionarioei «inposatzeak», alegia. *El País*-eko irakurlearen defendatzaileari idatzi nion, eskoletako inposizioaren ideia hori gezur hutsa zela esplikatuz. Arrazoa eman, eta zuzendu egin zuten azpitoluluko testua. Horrela utzi zuten: «*La lengua vasca se conoce más que nunca, pero su uso no alcanza la misma proporción. Las medidas para garantizar su presencia en la enseñanza y el funcionamiento provocan desencuentros*» (Euskara inoiz baino gehiago ezagutzen da, baina haren erabilera ez da proportzio berera iristen. Hezkuntzan eta funtzionarioen artean haren presentzia bermatzeko neurriek gatazkak eragiten dituzte). Baina pasadizo horrek erakusten du diskurtsoen azpian dauden ustekizunek nola funtzionatzen duten. Irakurlearen defendatzaileak azaldu zidanez, testua editatu zuenak —Madrilen, pentsatzen dut— erantsi zuen «inposizioaren» ideia hori. Antza denez, Madrilen, prentsa ezkertiarrek ere, inposizioarekin lotzen ditu beste hizkuntzak; oharkabean, beharbada. Ustekizunek hala funtzionatzen baitute, oharkabean. Eta zer esango dugu Espainiako eskuineko prentsari buruz?

Madrileraino joan beharrik ere ez dago: BERRIAko lankide batek aztertu ditu alderdiek Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aurkeztu dituzten euskarari buruzko programak. Elkarrekin Podemos-ek, PPK eta PSE-EEk esan dute «inposiziorik» gabe sustatu nahi dutela euskara. Hori esateak berak adierazten du iruditzen zaiela inposizio bat dagoela, edo egon litekeela. Behin berriro ere, ematen du gaztelania ez diren beste hizkuntzak inposizioarekin lotuta daudela erdaldun askoren imaginarioan. Eta ez Madrilen bakarrik, hemen bertan ere bai, ikusten dugunez.

*El País*-eko artikulu horren beste pasarte bat ere azpimarratzeko modukoa da: «*En la vida cotidiana, el euskara y el castellano conviven de forma amigable; en la frutería, el centro de salud o el taller a nadie se le responde en un idioma distinto al que pregunta*» (eguneroko bizitzan, euskara eta gaztelania modu adeitsuan bizi dira elkarrekin; fruta dendan, osasun etxean edota tailerrean, inori ez zaio erantzuten berak erabilitakoa ez den beste hizkuntza batean). Euskaldunok badakigu hori gezurra dela. Izatekotan, erdaldunei gertatuko zaie hori, ez euskaldunei, bistan da. Eta haientzat, erdaldun batzuentzat —adi honekin—, bizikidetzat adeitsu bat da hori. Artikuluaren titulua ere halakoxea zen, eta kontuz, aztergai dugun gaiaren muinetako bat ere hementxe dagoela esango bainuke: *Euskara eta gaztelania elkarrekin bizi dira kalean, eta Administrazioan talka egiten dute*. Horrela zioen tituluak. Eta titulu horren azpian dauden ustekizunetan arakatuz, ideia hau topatu genezake: administrazioan euskara eskatzea arazo gisa hartzen da, eta kalean euskara

egon liteke, erdaldunei traba egiten ez dien bitartean. Esango nuke erdaldun askok hizkuntzen arteko bizikidetzaz zer pentsatzen duten erakusten dutela adibide horiek, eta oso ongi zehazten dutela euskarari buruzko gatazka momentu honetan zertan dagoen.

Hori esanda, merezi du Inkesta Soziolinguistikoak (ISL) euskarari buruzko jarrerez esaten diguna ere gogora ekartzea. Azken ISLan (2021), EAEko herritarren %89k esan zuten haur guztiek euskara ikasi beharko luketela; eta %75ek, administrazioan sartzeko euskaraz jakin beharko litzatekeela. Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak hamabi puntu egin du gora 1991tik 2021era. Aldekotasuna, teoriarik bederen, handia da. Badakigu Nafarroan —lurraldearen hegoaldean, gehienbat— datuak bestelakoak direla; gazteen datuek, batez ere, alarmak piztu dituzte: 2011n, 16 eta 24 urte arteko nafarren %42k euskara sustatzearen aldeko jarrera zuten, baina 2021ean %27 baizik ez ziren. Nafarroan euskarari buruzko diskurtsoek sortzen duten kezka aipatu dugu lehen ere, eta hizkuntza eskakizunen kontrako epaiak-eta ezagunak dira han, aspalditik. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, berriagoak dira era horretako epaiak. Eta, ISLa ikusita behintzat, ez du ematen herrialde horietan kontrako jarrerak indartzen ari direnik, oraingoz, baina ez dakigu zer bilakaera izango duten diskurtso horiek. Izan ere, diskurtsoen auzian, garrantzitsuena ez da momentu honetan zenbat jende bat egiten duen ideia horiekin, baizik eta bozgorailu horiek eta eztabaida publikoan argudio batzuk indartzeak zer oihartzun eta zer bilakaera izan dezakeen.

### **Euskarari buruzko ustekizunak**

Hortaz, harira itzulita, diskurtso bakoitza posible da garai bakoitzeko botere harremanen eta garai bakoitzean onartuak diren ustekizunen arabera. Eta zeintzuk dira gaur egungo diskurtso horiek elikatzen dituzten alfonbra azpiko iritzi, ustekizun, sinismen sozial, argudio... horiek? Zeintzuk dira euskararen gaurko marko edo *framing*-a osatzen duten ideiak? Lehen aipatu dut nire ustez oso partekatua den ustekizun sozial bat: *Euskararen kontra ezin da egon*. Baina euskararen *framing*-ak askoz elementu gehiago ditu, denak ez dira horren positiboak, batzuk elkarren artean kontrajarrita daude, eta kasu batzuetan kontraesankorrak ere izan litezke. Ustekizun horietako batzuk aipatuko ditut:

- Euskara gorde beharreko ondare bat da.
- Euskara hizkuntza zaila da, arraroa, ez dauka seniderik, garestia da, denbora gehiegi eskatzen du, ezin da ikasi, edo ezin da ikasi ongi-ongi behintzat...
- Ez da euskararik behar bizitzeko (eta, gainera, herrialde inperialista-elebakarren eredu mentalak —Frantzia eta Espainia nagusi denak— ez du laguntzen: bizitzeko, hizkuntza bakar bat jakitea aski dela pentsatzera eramaten baitu).
- Euskararen alde egon zaitezke, euskararik jakin gabe (mundu abertzale-erdaltzalean aski zabaldua: nahikoa duzu Euskal Herriaren edo euskararen edo euskal kulturaren alde egotea, euskara jakin beharrik ez izateko).
- Umeak D ereduan matrikulatuta euskararen geroa bermatuko da (ustekizun hau pitzatzen hasi da, baina urte askoan sinistu dugu ideia horretan, eta ondorio gisa ekarri du hizkuntza salbatzearen *zama* umeengan eta eskola sistemaren bizkarrean uztea).
- ...

Arazo hau aztertzeke eta eztabaidatzeko denbora hartuko bagenu, eta diskurtsoen azpiko ustekizunetan sakonago miatuko bagenu, horrelako askoz ideia gehiago agertuko litzazkiguke, baina hemen esan nahi dudana esplikatzeko aski izango da horiek zerrendatuta.

Ustekizun horiek jokabide eta diskurtso batzuk eragiten dituzte eta praktika batzuk zurrizten edo espliketzen dituzte. Aldi berean, marko bat eratzen dute, joko zelai bat, hesiz itxitako esparru bat.

Eta gizartea itxitura horren barruan mugitzen da. Mugitu egiten dira itxitura horren mugak, bistan denez, eta interesgarria litzateke atzera begirako azterketa bat egitea ere, ustekizun horiek noiz eta nola sortu ziren eta nola bilakatu diren ikusteko. Eta etorkizunean ere mugitu eta aldatuko dira, bistan da, botere harremanak aldatzen diren neurrian sortuko baitira ideia berriak eta neutralizatuko baitira ideia horietako batzuk.

Nolanahi ere, susmoa dut itxitura horren barruan planteatu ditugula hizkuntza politikak: haustura sozial bat eragiteko arriskua saihestu nahi izan dugu beti, eta planteatu dugu borondatean oinarritutako prozesu bat euskara berreskuratzeko, apenas inor ezertara *behartu* ez duena. Eta euskararen berreskurapena, neurri handi batean, norbanakoen borondatean oinarritu denez, ez dago euskaraz ikasteko beharrik, obligaziorik, presio sozialik, obligazio legalik... Esan liteke boterea erabiltzeari uko egin diola euskara normalizatzeko politikak, eta limurtzearen edo konbentzitzearen bidez egin nahi izan duela hizkuntza politika bat, inor *behartu* gabe. Eta horrek eroso utzi ditu gizartearen zati handiak, euskara ikasteko beharrik eta hizkuntza gatazkari buruzko tentsiorik gabe. Ez da nire asmoa orain horri buruz eztabaidatzea, edo estrategia hori egokia edo okerra izan ote den aztertzea, norberak izango du horri buruzko iritziren bat eta ez da lan honen asmoa horretan sartzea, baina interesatzen zait hori aztertzea, jakiteko nolatan hizkuntzari buruzko diskurtsoetan ez den, orain gutxi arte, gatazka eta tentsio handiagorik sortu; eta uste dut ustekizun horietan arakaturaz iritsi gaitezkeela hizkuntzei buruzko gatazken bilakaera hobeto ulertzea, horrek emango digulako diskurtsoen bilakaerari buruzko ikuspegi bat.

Martinez de Lunak EAEn eta Erizek Nafarroan diskurtsoei buruz aurreko hamarkadan egindako lanetan ondorioztatzen da badela adostasun orokor bat gizartean (Hegoaldean, bederen), bi ideia hauen inguruan: elkarren arteko errespetua, eta euskara babestea. Eta ISLn jasotako erantzunek hala berresten dute, Nafarroa hegoaldeko salbuespenarekin. Baina punta pixka bat zorroztu beharko genieke ideia horiei agian. Izan ere, nola da posible bi hiztunen arteko errespetua, haietako batek bestearen hizkuntza ez badaki? «*¡Hábleme en cristiano!*» esan beharrean «*Me podría hablar en castellano, ¿por favor?*» esateaz ari gara? Merezi luke *errespetu* kontzeptu horren atzean zer dagoen aztertzea. Ez ote du esan nahi *ez nazazue behartu beste hizkuntza hori erabiltzera? El País*-eko artikulu horretan ikusi dugu erdaldunentzat —erdaldun batzuentzat, bederen— errespetua zer den: gaztelaniaz hitz egitean, gaztelaniazko erantzuna jasotzea. Eta *euskara babestea* kontzeptu horrek zer esan nahi du zehazki? Noraino *babestu* behar da, eta nondik aurrera bihurtzen da hori *inposizio*? Administrazioeko hizkuntza eskakizunei buruzko gatazkek ez ote ditu erakusten adostasun horren ahulguneak?

Esango nuke *framing*-ak eta diskurtsoek erakusten dutela euskararen aldeko atxikimendu pasibo bat dagoela, norberaren erosotasuna edota ideologia kolokan jar dezaketen urratsek aise aztora dezaketena. Izan ere, *errespetuaren* ideiarekin azpian beste ideia hau egon liteke: «Euskara salbatzea ongi dago, niri kalte egiten ez didazuen bitartean; *behartzen* ez nauzuen bitartean». Eta, bistan da, gizartearen sektore batzuk ulertzen hasi dira hizkuntza politikak «kalte egiten» ari zaizkiela: oposizioetan, eskoletan... Eta gehiago dena: eztabaida hau erakusten ari da erdaldun batzuek ez dutela euskara ikasi nahi. Oso esanguratsua iruditzen zait: haien lanpostuari eusteko hizkuntza bat ikasteko eskatzean, gure bizilagun batzuek nahiago dute epaitegietan helegiteak jartzen ibili, euskara ikasten hasi baino. Eta horren azpian dago euskarari buruzko *framing*-az esan duguna, lehen zerrendatutako ideia horiek guztiek politika hori indartzen baitute: «Euskara ikastea zaila da, nik ez dut ikasi beharrik, gazteek ikasiko dute, eta haiek *salbatuko* dute euskara». Argudioak gehitu diezazkiokegu arrazoiketa horri, eta diskurtsoak sortu horren gainean: «Euskararik ez da erabiltzen, Konstituzioaren arabera gaztelaniaz jakin behar dugu denok, euskaraz egitea baztertzaila da, zein hizkuntza erabili nahi dudan erabakitzeke askatasuna daukat, eta abar, eta abar».

## Diskurtso berrietako osagarri batzuk

Hortaz, diskurtsoak ez dira hutsetik sortzen, eta ez dira monolitikoak, aldatu eta egokitu egiten dira unean uneko oreken eta baldintzen arabera. Eta, bestalde, diskurtso batean bateko eta besteko osagaiak edo argudioak agertu litezke, Legoko piezak balira bezala, eta osagarri horietako batzuei erreparatuko diegu orain, ikusteko zer bilakaera izaten ari diren, eta osagarri berriak sortzen ari ote diren, hartara ikusteko diskurtsoak nola bilakatzen ari diren.

**Inposizioarena.** Diskurtso zaharra da, berez, hizkuntza politikak eurak bezain zaharra kasik, eta Espainiako zein Nafarroako eskuinak erabili izan dute, askotan. Deigarria da, halere, inposizioaren ideia hau agertzen den aldi gehienetan, ia beti, euskararen aldeko aipamenei bat eranstea derrigorrezkoa suertatzen zaiola diskurtso hori darabilenari. Adibidez, 2018an, «euskararen inposizioaren» kontrako manifestazio batek 15.000 bat lagun elkartu zituen Iruñean, UPNk eta PPK babestutako deialdian. Antolatzaileek irakurritako agiriaren arabera, manifestazioa ez zen euskararen kontrakoa, baizik eta Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren kontrakoa —garai hartan, Geroa Bairen eskuetan—. Nafarroako PPK karabana bat antolatu zuen garaitsu hartan, «euskararen inposizioa» salatzeko. Ana Beltran popularren orduko eleduna horrela mintzatu zen: «Euskara errespetatzen dugun hizkuntza propioa da, baina ez dugu inposiziorik onartuko. (...) Euskal hiztunen eskubideak argudiatuta, euskara injektatu nahi digute, halabeharrez, aukeratzeko askatasunik gabe, eta ahaztuta herritarren %93k ez dutela hitz egiten eta ez dela hizkuntza ofiziala». Txartel elebidunak eta telefono deietan lehen hitza euskaraz egitea ziren inposizioa, Beltranentzat.

2018ko adibide pare bat ekarri ditut, baina diskurtso hau zaharragoa da, berez; aurreko adibideak erakusten digu, ordea, alderdi batzuek politikoki erabiltzen dutela gaia, gizartean izua zabaltzeko eta beste alderdi batzuei kontra egiteko. Adibide horietan, gatazka ez da, hainbeste, hizkuntzari buruzkoa, baina hizkuntzari buruzko gatazka edo tentsioa baliatzen da beste alderdi batzuei kontra egiteko.

Bestalde, inposizioaren diskurtso horrekin batera zenbait ideia agertzen ohi dira. *Bazterkeria* aipatzen da askotan, herritarren zati bat apartatu egiten dela. *Askatasuna* —norberak nahi duen hizkuntza aukeratzekoa— ere diskurtso horren parte izan ohi da, Katalunian hemen baino indar gehiagorekin seguru asko. Euskal Herrian ez dut uste, oraindik behintzat, aukeratzeko askatasunaren argudio hori mamitu denik. Izan ere, paradoxa galanta da (edo ez), baina gaztelaniak nagusitasun ia erabatekoa duen eremuetan du indar gehien diskurtso horrek. Halere, Kataluniako eta Madrilgo eztabaida horiek badute oihartzuna eta eragina gurean, eta ez da baztertu behar diskurtso horiek indarra hartzea, Espainiako bozgorailuek eragina dutelako hemengo ustekizunetan ere.

Azken urteotan, berriz, funtzio publikorako lan eskaintzetako hizkuntza eskakizunei lotuta ageri da inposizioaren ideia, eta ematen du hor hartu duela indarra, batez ere, epaitegien bidetik. Eta bide horrek baditu bere arriskuak, ISLko datuen arabera Araba, Bizkai eta Gipuzkoako herritar gehienak euskara sustatzeko neurrien alde dauden arren, gutxi batzuk aski direlako politika oso bat hankaz gora jartzeko, eta horrek ere bere oihartzuna eta eragina izan dezakeelako. Auzi honetan, garrantzitsuena ez da, orain bertan, diskurtso hori baliatzen ari den jende multzoaren tamaina, baizik eta multzo horren eragiteko eta bozgorailuak edukitzeko gaitasuna.

Inposizioaren diskurtso horrek badu beste mutur bat: euskara inposatzearen bizipena duten euskaldunena. Diskurtsoa errepikatzearen errepikatzez, barneratu ere egin dute/dugu euskaldun askok. Izan ere, hori da diskurtsoen helburua, ez dezagun ahaztu: errealitate soziala moldatzea. Eta

badirudi inposizioari buruzko diskurtso hori bere helburua lortzen ari dela, neurri batean behintzat, euskal hiztunak —hiztun batzuk behintzat— lotsatzeraino. Unibertsitateko irakasleren bat sumatu dut horrekin kezkatuta, euskal ikasleek barneratuta omen dutelako erdaldunei euskara *inposatzen* aritzeko kezka edo beldurra, eta, beraz, diskurtso hori lortzen ari da euskaldun batzuk, bederen, egoera deserosoan jartzea.

**Errealitate soziolinguistikoarena —edo erabilerarena—.** Inposizioaren diskurtsoaren parte gisa agertzen da batzuetan, eta bestelako diskurtsoen parte gisa beste batzuetan, baina, funtsean, batzuek eta besteek gaitzesten dute hizkuntza politikak diseinatzean ez dela aintzat hartzen errealitate soziolinguistikoa, edo euskararen erabilera. 2016an, esaterako, Iruñeko Udalak haur eskoletan euskarazko eskaintza handitzeko asmoa agertu zuenean, guraso talde batek elkarretaratze bat egin zuen; dozenaka lagun elkartu ziren, esateko baietz, euskarazko eskaintza handitzea ongi zegoela, baina horrek ez zuela eragin behar gaztelaniazko edota ingelesezko eskaintza murriztea. Aipatu dugun PPren karabana hura aurkezteko agerraldian ere, Ana Beltranek zehazki aipatu zuen euskara ia inork ez duela erabiltzen. Eta Iruñeko 2018ko manifestazioaren antolatzaileek ere hala esan zuten: «Euskara Nafarroaren parte da, baina gutxiengo batek hitz egiten du».

Garikoitz Goikoetxea euskara teknikariak aztertu zituen argudio horren tranpak, 2023ko iritzi artikuluan batean: «Euskararen aurrerabidea tratatzeko ohiko argudioa da errealitate soziolinguistikoarena: alegia, tokian tokiko egoeraren arabera egin behar direla urratsak euskararen estatusari dagokionez. Nafarroan urteetan erabili da argudio hori zonifikazioari eusteko, eta orain Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ere erabili du, zer eta toki-erakundeetan euskararen aurrerabidea tratatzeko. Euskararen egoera makurra, euskara suspertzeko ahaleginen kontrako argudio gisa».

Nafarroan ez ezik, beste testuinguru batzuetan ere agertzen da «errealitate soziolinguistikoaren» argudioa. Adibide bat: Euskara Denontzat taldea 2022tik eskatzen ari da EAEko administrazioen lan eskaintza publikoetako hizkuntza eskakizunak zehaztean errealitate soziolinguistikoa aintzat hartzeko. Talde horren eta Nafarroako eskuinaren asmoek ez dute zerikusirik batere, baina funtsean argudio bera da: ez eskatu ezinbestekoa dena baino euskara gehiago. Euskara Denontzat taldeak antolatutako jardunaldi batzuetan PSE-EEko parlamentari bat omen zen entzuleen artean —ez nintzen bertan, eta ezin ziurtatu—, eta galderen txandan zera esan omen zuen: «Youtuben, bideo gehiago ikusten dira korearrez, euskaraz baino». Gutxitutako hizkuntza baten erabileraz eta beraz gutxiengo batetaz trufatzea da hori, baina ulertu behar da zerbaiten kontrako erreakzio bat ere badela: herritar batzuei *gehiegi* eskatzen zaien irudipen bat sumatzen da horrelako ateraldien azpian. Aldi berean, erdal hiztun ugari elkartzen dituen zehar lerroko ideia bat da hau, ideologiak guztiz diferenteak izan arren. Funtsean, uste dut esaten ari direla: «Ez behartu gu euskaraz egitera». Edo makurrago, beharbada: «Egon zaitezte zuen txokoan euskararekin, ez atera hortik».

**Pribilegioena; bazterketarena.** Nafarroan, ezker eta eskuin erdalzaleak elkartzen dituen beste argudiaketa bat bada, azkeneko hilabeteetan ikusi dugunez. Zuriñe Peña Eguesibarko alkateak (UPN) adierazi zuen euskaldunek pribilegioak dituztela, euskaraz zein gaztelaniaz diren ekitaldietara jo dezaketelako, eta, gainera, ekitaldiak euskaraz egiteak baztertu egiten dituela erdaldunak. Alejandro Lopez Orkoiengo alkateak (PSN) orpoz orpo jarraitu zion argudio horri, esanda ludoteka euskaraz jarrita euskaldunek bietara jo ahalko zutela, eta erdaldunek batera bakarrik. «Ez gara ari eskubideei buruz. Ari gara pribilegioei buruz», esan zuen. Berri-berriak ere ez dira diskurtso horiek. PSE-EEK, 2016ko hauteskunde kanpainen, *Euskara askatasunean* leloarekin, adierazi zuen erdaldunak baztertu egiten dituela administrazioak, hizkuntza eskakizunak jartzean. Hortaz, berri-berria ez, baina UPNko eta PSNko alkate horiek urrunago eraman dute diskurtsoa, eta

euskarazko ekitaldiak oro baztertzaitzat jo dituzte, eta horrek bide arriskutsu bat ireki dezake, euskaraz den guztia *baztertzaitzat* jotzeko. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ez du ematen hainbeste indar duenik diskurtso horrek, oraingoz bederen. Baina euskaldunak pribilegiatuztat jotzeko argudioa bai ari dira erabiltzen Euskara Denontzat taldekoak, funtzio publikoko lanpostuen hizkuntza eskakizunei lotuta. Hizkuntza soslaiak dituzten herritarren %15-18 inguruk lanpostu publikoen %90 bereganatzen dituztela esana dute, pertsona horiek —euskaldunak— pribilegiatuak direla iradokiz.

**Legearena.** Edo bestela esanda: «Legea lege da denontzat». Administrazioen hizkuntza eskakizunen aurkako helegite asko eraman dituen abokatuak, Francisco Lopez Lerak, oso argi esplikatzen du han-hemenka eman dituen elkarrizketetan: bera ez dago euskararen kontra —*Euskararen kontra ezin da egon*—, baina legeak betetzearen alde dago bera. «Arauek ez ditut nik asmatu. Hor daude, eta aplikatu egiten ditut. (...) Legea aplikatzen dut, besterik ez». «Enplegu publikorako sarbidean ez da betetzen Konstituzioa. Funtsezko eskubide bat urratzen ari da, (...) euskara maila jakin bat dutenei mesede egiten dietelako».

Patxi Zabaleta abokatu eta idazleak aztertu du diskurtso hori, iritzi artikulua batean (2024), eta ondorioztatu du euskararen aldeko eta kontrako argudioak eraldatu egin direla azkeneko hamarkadetan. Zabaletaren hitzetan, euskarafoboek euskara gutxietsi eta mesprezatu egin izan dute XVI. mendetik XX. mendera, baina, aurreko mende erditik hona, euskararen batasun literarioaren kontra, euskara hezkuntzan sartzearen kontra, euskararen ofizialtasunaren kontra... aritu ziren. «Oraingo euskarafobo hauek ez dute esaten euskara akastuna denik (...). Aldiz, esaten dutena zera da, euskarak ez duela betekizun, meritu, abantaila edo pribilegioa izan behar; hau da, euskarak ezin duela gazteleraren edo espainolaren parean jarria izan... Soilik espainola jakiteko obligazioa daukagula aldarrikatzen dute, Konstituzio sakrosantuak horrela dioelako. Beraz, euskarafoboek argudioak aldatu eta metamorfosi sakona jasan dute».

Alfonso Rios CCOOko kideak ere antzeko argudioak eman izan ditu, beste hitz batzuekin bada ere, sindikatu horrek ere jo izan baitu auzitegietara zenbait lan eskaintza publikotan: «Euskarazko arretak guztiz bermatuta egon behar du herritar guztientzat. (...) Baina arreta hori eskaini behar dutenen eskubideak ere bermatu behar dira». Funtsean, horrek esan nahi du pertsona batzuek haien lanpostuak mantentzeko eskubidea izan behar dutela, inor euskaraz ikastera *behartu* gabe. Eztabaida horrek eta auzitegietan hartu duen bideak Espainiako Konstituzioaren eremura eramaten du debatea, eta, horrela, euskaraz ez jakiteko eskubidea bermatzen da, inon horrela formulatzen ez bada ere hori baita Espainiako Konstituzioak xedatzen duena. Eta, azken buruan, *framing*-ean aipatzen genuenera itzultzen gara: euskaraz ez jakiteko eskubidea, euskaraz ikasi beharrik ez izatea, defenditzen ari dira auzitegietan, oraintxe bertan, eta erdaldunen gehiengoak bat egiten du ideia horrekin, baita euskararen aldeko jarrera izanda ere.

## Argudio berri batzuk

Soziolinguistika Klusterrak antolatutako jardunaldi hauetan diskurtso emergentez ari garenez, apunte gisa aipatu nahi nituzke bizpahiru diskurtso edo argudiaketa, azkenaldian aditzen ari naizenak, nahiz eta beste esparru batzuetatik datozen. Berri samarrak iruditzen zaizkit argudiaketa hauetako batzuk, eta ez naiz gai bereizteko zenbateraino diren iritzi solte oihartzun handirik gabek, edo gizartearen azpiko korranteetan gertatzen ari diren mugimendu berriak. Nolanahi ere, jaso egin nahi nuke horien berri, etorkizunean bilakaerarik ba ote duten ikusteko, besterik ez bada ere.



Batetik, hizkuntza politika batzuk «arrazista eta baztertzailatzat» jo ditu Nerea Fillatek berriki, elkarrizketa batean. Diskurtso horren atzean zer dagoen ez du sakondu elkarrizketa horretan, baina beste testu batzuetan salatu izan du D ereduko ikastoletan klase ertain altuko ikasleak kontzentratzen direla eta horietan sumatzen duela euskaldunak klase baxuko migratzaileengandik bereizteko intentzio bat. Ideia horren inguruan ere badirudi ardatzen ari dela diskurtso bat, euskaldunak —euskaldun batzuk, agian?— elitista eta baztertzaille gisa kokatzen dituen. Ez dakit argudio horiek zenbateraino dauden zabaldua, ez eta zer bilakaera izango duten ere, baina segregazioari buruzko eztabaida sutsuak daude, alde batetik, eta guraso asko kezkatuta dabilta, bestetik, eskolak haien umeak erdalduntzen ari direlako. Eskoletako errealitatea goitik behera aldatu da azkeneko bi hamarkadetan, gutxienez, eta ezinegon asko pilatu dira. Testuinguru horretan, euren umeak euskaldun mantentzeko euskal ikasleak kontzentratzeko eskatzen ari diren gurasoa arrazistatzat jo dituztela ere ikusi dugu, eta eskola komunitateek debate zail eta gogorrek izango dituzte datozen urteetan ere; eta gatazka horietan diskurtso berriak egituratuko dira, seguru asko.

Bestetik, guztiz bestelako kontu bat: euskal musikari gazte batzuk hasiak dira esaten «natural» ateratzen zaizkiela kantu batzuk gaztelaniaz (edo ingelesez), orain dela 25 urte pentsaezina litzatekeena, edo nekez egin eta nekezago justifikatuko litzatekeena. Eta ideia horren atzean sumatzen dut diskurtso berri baten hazi bat, euskal sortzaile batzuek euren buruei euskaraz sortzeko obligazioa kendu nahi batean edo oinarritu litekeena, agian. Ez dakit ez ote dagoen lotua EAEko (batez ere Gipuzkoako) gazteen arteko ustekizun edo pertzepzio batekin: alegia, euskarak ez duela arriskurik gehiago, eta beste hizkuntza batean egin dezakeela euskaldunak lasai asko, ez dagoela etengabe euskaraz egin beharrik. Naturaltasunaren aldeko diskurtsoa dei geniezaiokeen horren barruan sar litezke beste diskurtso batzuk, aipatu dudan horrekin zerikusia zuzena eduki ez arren, euskara arriskutik aparte ikustearekin zerikusia izan dezaketenak eta, funtsean, naturaltasunaren ideian oinarritzen direnak: euskara batuaren *artifizialtasunaren* aurkakoak eta etxeko euskararen (*euskalkiak*, esaten dute haiek) *naturaltasunaren* aldekoak, zein euskara zabar eta gaztelaniaz irentsitako baten aldeko aldarriak, beti naturaltasunaren izenean —azken horri buruz, argitu nahi dut ez naizela batere garbizalea, baina guztiz harrigarria egiten zait zabarziale jokabide hori: propio gaizki edo propio gaztelaniaz hitz egitea—. Gizarteetan, esan behar dut, ez dago ezer naturalik, hizkuntzetan are gutxiago, eta naturaltasunaren aldeko argudio horiek beste zerbait gordetzen dute azpian, nire ustez: hizkuntza bat nahita gaizki egitea eta gaizki egitea defenditzeak zer ezkututzen du atzean? Are gehiago: gutxitutako hizkuntza bat, galtzeko arriskuan dagoena, nahita zabartzeak zer esanahi du?

Eta bukatzeko, ikusten dut beste jokabide bat. Euskararen hegemonia, euskara zenbait eremutan nagusi izatea, arnaguneen garrantzia... aipatzen direnean, badira ahots batzuk horien garrantzia auzitan jartzen dutenak, periferiako euskaldunen ekarpena gutxiesten delakoan edo. Ez nago oso seguru zer dagoen horren atzean, eta ez nuke esango argudio edo diskurtso forma duenik oraindik, baina bada erdiguneko (Gipuzkoa) euskalgintzaren kontrako erreakzio gisako bat edo.

### **Ondorio gisako proposamen batzuk**

Atrebentzia guztiarekin ausartuko naiz proposamen batzuk egitera, euskararen inguruko diskurtsoetan sakontzeko gogoak zirikatzeke asmoz.

Batetik, uste dut ideia ona litzatekeela euskarari buruzko diskurtsoen azterketak eguneratzea. Baina ez genuke gelditu beharko diskurtsoen edo plazara ateratzen diren adierazpenen azterketa soilean. Uste dut sakondu behar dela euskarari buruzko ustekizun eta egia sozial horietan, diskurtsoen azpian dauden eta horiek sortzea ahalbidetzen duten baldintzetan. Esaterako, Euskal Herriko

gizartearen gehiengoak jarraitzen badu pentsatzen euskara hizkuntza zaila, ezinezkoa eta garestia dela, eta beraz umeak euskalduntzea dela euskara sustatzeko estrategia onena, oso-oso zaila izango da euskarak hiztun berriak irabaztea helduen artean, gune gehienek erdaldunduta jarraituko dute, eta euskaraz ikasten duten ume horiek euskaldundu gabe jarraituko dute, eta erabilerak ez du urrats esanguratsurik egingo. Horregatik uste dut beharrezkoa dela ulertzea zergatik ehunka milaka herritar helduk ez duten euskara ikasi azkeneko mende erdian; eta, horrekin batera, interesgarria litzateke jakitea hizkuntza eskakizunak modu abstraktu eta pasibo batean ontzat jotzen dituen gizarte horretako norbanakoek zer iritziko lioketen hizkuntza eskakizunak norberari jartzeari. Euskara babesteko ideia partekatu hori, zenbateraino edo noraino da erreal? Zenbateraino da egiazkoa euskararen aldeko ideia abstraktu hori? Eta zerk pitzatzeko arriskua luke?

Neuk ere ustekizun eta iritzi batzuen gainean eraiki dut diskurtso hau, eta, seguru asko, nahi baino ur handiagoetan sartu naiz. Ez, berez, inor konbentzitzeko asmoarekin. Seguru asko, ideia oker, lauso, eta garatu gabeko batzuk joango ziren tartean. Baina testu honen erdian inor inspiratuko lukeen ideia bat balego, edo hau baino ikerketa zorrotzagoak zirikatze balioko balu, nahikoa eta sobera izango da. Eta, beraz, barkatu atrebentzia, eta segitu ikertzen.